

<b>ADIERAZLEA:</b>	<b>ENPRESA ZERBITZUETAKO ENPLEGU KOPURUA</b>
<b>FITXA METODOLOGIKOA</b>	
<b>ARDATZA:</b>	<b>EKONOMIA</b>
<b>ALORRA:</b>	<b>ENPRESA ZERBITZUAK</b>
<b>DEFINIZIOA:</b>	
<p>Udalerrian dauden enpresa zerbitzuetako enplegu kopurua.</p>	
<b>NEURRI UNITATEA:</b>	
Enplegua	
<b>KALKULU METODOLOGIA:</b>	
<p>Enpresa zerbitzuetako aktibitateetako enplegu kopurua.</p>	
<b>KALKULU MAIZTASUNA:</b>	
Urtero	
<b>INFORMAZIO ITURRIAK:</b>	
Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID), Eustat.	
<b>OHARRAK:</b>	
<p>Erreferentziako urtearen aurreko urtean jardueretan modu aktiboan parte hartu duten pertsonen batez bestekoa, eskudirutako edo espezieetako ordainsari baten truke edo enpresa-mozkinen parte baten truke, izango da establezimenduek sortutako <b>“enplegua”</b>.</p> <p>Kontzeptu horretan mota guztietako laneskua sartzen da: jabeak, autonomoak eta bazkide aktiboak, famili laguntzak (partaidetza iraunkorra izan edo ez izan), soldatapeko langile finkoak (etengabeak edo etendunak), eta soldatapeko aldi baterako langileak, nahiz eta aldi batez lanean egon ez, edozein arrazoi dela medio, baina lan harremanak irauten badu (gaixotasuna, amatasun baimena, oporrak, greba, lansaioaren erregulazioa, etab).</p> <p>Lanaldi partzialean egiten diren jardueretan, denboraldikoetan, urtebete baino denbora laburragoan egiten direnetan (urte horretan irekitzeagatik edo ixteagatik), soldatapeko aldi baterako langileek egindakoetan edo langile finko etendunek egindakoetan, lanaldi osoan urteko batez besteko baliokidea zenbatuko da okupatutako langile gisa.</p> <p>Enpresa zerbitzuen sektoreko enplegu-kopurua zehazteko orduan, ondoko hauek izango dira kontuan: CNAE-2009ko J (60 kodigoa izan ezik), K, M eta N.</p> <p>J: informazioa eta komunikazioak          K: finantza jarduerak eta aseguru-entzakoak          M: jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak          N: administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak          60: Irrati eta telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak</p>	